



v. Postposizioak (Lokatiboak)

v.1. Hurbiltze adlatiboa: *-ra aldera*, *-raka* (v *-rantz*)

Egilea: Ane Berro

Nola aipatu: Berro, Ane. (2022). Hurbiltze adlatiboa: *-ra aldera*, *-raka* (v *-rantz*). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=5&e=48&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

adlatiboa, hurbiltze adlatiboa, lokatiboak, postposizioak

Deskribapena

Hurbiltze adlatiboan aldakortasun dialektal handia dago euskal hizkeretan. Eredu orokorrean, *-rantz* da norabidea adierazteko, hau da, hurbiltze adlatibo gisa, erabiltzen den postposizioa (1). De Rijken (2008: 49) arabera, *-rantz* atzizkia *-ra* adlatiboaz eta *antz* izena baturik sortu zen (lehenago proposamen bera Orixek berak egin omen zuen, Azkueren [1995: 333] arabera). Bestalde, Gómezek (2005), dio *-rantz -ra* adlatiboa eta **ontz* izen zaharra elkartuta sortu zela. Haren proposamenean, **ontz* latinezko *uersus*, *uersum*-en antzekoa da; beraz, *-rantz* latinezko *ad uersum* / *uersus* egituraren kalkoa litzateke.

(1)	Etixerantz	noa
	etxe.ALL.APR	1SG.ABS.joan

Forma beraren kidekoak har litezke mendebaleko sartaldeko azpieuskalkiko *-rantza*, eta sartaldeko azpieuskalkiko *-rutz* (Zuazo 2008, 2017). Horiek alde batera, gainerako euskalkietan, morfologikoki desberdin samarrak diren beste forma batzuk ere erabiltzen dira norabidea adierazteko.

Batetik, *alde* postposizio askeaz (edo ardatz zatiaz) eta adlatibo postposizioaz osaturiko forma aurki genezake.

(2)	Etxe	aldera	noa
	etxe	alde.ALL	1SG.ABS.joan

Hizkera eredu horren banaketa morfosintaktikoa eredu orokorrarenaren (1) antzekoa dela dirudi; izan ere, leku izen berezi zein arruntekin erabil daiteke. Ez da hala gertatzen bigarren hizkera ereduarekin, hots, *-raka* hurbiltze adlatiboaren formarekin (3).

(3)	Etxeraka	noa
	etxe.ALL.ka	1SG.ABS.joan

(3) adibideko forman *-ra* aldatiboazko postposizioa eta *-ka* atzizkia ageri dira. Azken hori batez ere adberbioak sortzeko erabiltzen da euskaraz eta zenbait egilek gertakarien eremuan interpretazio errepikakorra edo iteratiboa (Etxepare 2003; de Rijk 2008; Berro 2015) egotzi diote (e.g. *saltoka*). Nolanahi ere den, (3)-n ikus daitekeenez, *-ka* beste eremu batzuetan ere erabiltzen da, postposizioen eremuan, baita zenbatzaile altuekin ere (*milaka*, *zientoka*, *dozenaka*). Horregatik, Berrok (2017) *-ka* interpretazio metagarria eragiten duen Numero atzizki bat dela proposatu du, eta kategoria bat baino gehiagotan ager daitekeela: aditzekin, izenekin eta postposizioekin.

Atzizkiaren testuinguru morfosintaktikoari dagokionez ere, *-raka* hurbiltze adlatiboaren banaketa aipatu ditugun beste baina baino murriztagoa dela argi ikus daiteke. Batez ere, leku izen arruntekin (3), edo lekuzko erakusleekin (*honeaka*) erabiltzen da eta askoz ere maizago postposizio askeekin (*goraka*, *aurreraka*, *atzeraka*). Oro har, *-raka* ez da onargarria leku izen bereziekin. Hala ere, *Bilboraka* azpi-hizkera ereduak (4) baiezko erantzun bat jaso du jaso du, Erreterian hain zuzen.

(4)	Bilboraka	joan	da
	Bilbo.ALL.ka	joan.PTCP	(3ABS).izan

Azkenik, badira beste hizkera eredu bi hurbiltze adlatiboa osatzeko. Bietan erabiltzen da *buru* postposizio askea (edo ardatz zatia) postposizio instrumentalari lotuta (*-z*), baina *buruk* osagarritzat duen postposizio sintagma desberdina da. Lehenengoan, adlatiboazko postposizio sintagma hartzen du (*etxera*) (5), eta bigarrean, aldiz, datiboazkoa (*etxeri*) (6).

(5)	Etxera	buruz	noa
-----	--------	-------	-----

	etxe.ALL	buru.INSTR	1SG.ABS.joan
(6)	Etxeari	buruz	noa
	etxe.DET.DAT	buru.INSTR	1SG.ABS.joan

Azken hizkera eredu bie dagokienez (5-6), egile batzuek adlatiboaren eta datiboaren arteko erabilera izen osagarriaren bizigabe/bizidun banaketarekin lotu dute (Pikabea 1993: 218). Nolanahi ere den, Epelderaren arabera (2004), adlatiboa bizigabeekin bakarrik erabiltzen bada ere, datiboa bizigabeekin zein bizidunekin erabiltzen da Larresoron. Hortaz, bi egiturak baliokideak lirateke bai esanahiaren aldetik, bai testuinguru morfosintaktikoaren aldetik ere.

Banaketa dialektala

Lehen hizkera ereduko formak (2) erdialdeko eta euskara nafarreko zenbat hizkeratan aurki daitezke. Esate baterako, Montoyak (2004: 118) Zugarramurdira eta Urdazubira *aldera(t)* hurbiltze adlatiboaren berri eman du (e.g. *Sara alderat*, *Frantzia aldera*, *lezeetako alderat*).

Zuazoren (2008: 146) arabera, bigarren hizkera ereduko *-raka* hurbiltze adlatiboa (3) Gipuzkoan erabiltzen da, toki batzuetan beste batzuetan baino indartsuago.

Azken hizkera eredu biak (5-6) EGLU II-n (Euskaltzaindia 1985 [1991]: 300) jasotzen dira, lehena (5) ekialdekoa dela zehaztuta. Zuazok (2008: 232), aldiz, biak zerrendatzen ditu Ipar Euskal Herriko ezaugarrien artean. Epeldek (2004: 96), esate baterako, Larresoroko hizkeran (nafar-lapurterra) bi egiturak erabiltzen direla esan du.

Datu-basearen emaitzak

Euskara Bariazioan (BiV) datu-basean (2)-ko hizkera ereduak banaketari dagokionez, hizkera eredu hori erdialdetik muturretara goazela hedatu samar dagoela ikus daiteke: erdialdeko aldaera guztietan baiezko erantzuna jaso du, baita mendebaleko sortaldeko aldaera batzuetan (Aramaion eta Elgoibarren) ere. Ekialdera goazela, Ziburun haren berri jaso da, baita euskara nafarreko neurtutako ia hizkera guztietan ere (Orbaitzeta da salbuespena).

Bigarren hizkera eredu (3) Gipuzkoan aurki daiteke Zuazoren (2008: 146) arabera. Datu-baseko emaitzei begiratzen badiegu, ordea, bi puntutan baino ez dugu baiezko erantzuna jaso: Itsasondon eta Erreterian. Azken honetan, gainera, azpi-hizkera eredu (4) lekukotu da, Erreterian *-raka* hurbiltze adlatiboa leku-izen bereziekin erabiltzen delako lekukotasuna jasoz.

Azken bi hizkera ereduak dagokienez, datu-basean momentuz (5) egituraren gainean galdetu da bakarrik eta Ipar Euskal Herriko bi herritan baizik ez da baiezko erantzuna jaso: Ziburun (Lapurdin) eta Urdiñaben (Zuberoan). Oragarren ezezkoa jaso da, eta Larresoron ez da galdetu.

Aipamenak

- Azkue, Resurrección Maria. 1925. *Morfología Vasca*. Bilbao: Euskaltzaindia. [Berrargitalpena 1969, Bilbao: LGEV, 3 ale].
- Berro, Ane. 2015. *Breaking verbs. From event structure to syntactic categories in Basque*. Ph.D. Diss., UPV/EHU and Université Bordeaux Montaigne (UBM).
- Berro, Ane. 2017. «Pluractionality and more. The lexical plural KA in Basque». Ms., Deustuko Unibertsitatea.
- de Rijk, Rudolf P.G.. 2008. *Standard Basque: A progressive grammar*. Cambridge (Mass.): MIT Press.
- Etxepare, Ricardo. 2003. «Valency and argument structure in the Basque Verb». In José Ignacio Hualde and Jon Ortiz de Urbina (eds.), *A grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter. 363-425.
- Euskaltzaindia. 1985. *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak I*. Iruñea: Institución Príncipe de Viana eta Euskaltzaindia. [Reprinted in Euskaltzaindia. 1991]
- Gómez, Ricardo. 2005. «De re etymologica: vasc. -(r)antz "hacia"». In Pilartxo Etxebarria eta Henrike Knörr (eds.), *Nirekin yayo nun. Txillardegiri omenaldia*. Bilbao: Euskaltzaindia. 273-280.
- Montoya, Estibalitz. 2004. *Zugarramurdiko eta Urdazubiko euskara*. Iruñea: Nafarroako Gobernua.
- Pikabea, Josu. 1993. *Lapurtera idatzia (XVII-XIX). Bilakaera baten urratsak*. Donostia: UPV/ EHU and Kutxa Fundazioa.
- Zuazo, Koldo. 2008. *Euskalkiak, euskararen dialektoak*. Donostia: Elkar.
- Zuazo, Koldo. 2017. *Mendebaleko euskara*. Donostia: Elkar.

v.2. Aditz-izena + inesiboa helburua

adierazteko: *egiten joan* (v *egitera joan*)

Egilea: Jürgen Etxebarria

Nola aipatu: Etxebarria, Jürgen. (2022). Aditz-izena + inesiboa helburua adierazteko: *egiten joan* (v *egitera joan*). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua.

[Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=5&e=49&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

adlatiboa, inesiboa, lokatiboak, nominalizazioa, postposizioak

Deskribapena

Eredu orokorra: Euskaraz, espazio aldaketa baten Helburua adierazteko erabili ohi den adposizioa adlatibo (-ra) da. Espazio aldaketak adierazterakoan, mugimenduzko aditzak ¹ erabili ohi dira. Mugimenduzko aditzen osagarri direnean, aditz-izenak adlatiboaz markatu ohi dira Euskal Herriko erdialdeko eta ekialdeko hizkera gehienetan (*konpontze-ra; eramate-ra, eta abar*).

(1)	Zapata	konpontzera	joan	da
	zapata.ABS	konpon.NMLZ.ALL	joan.PTCP	(3ABS).izan

Hizkera eredu: Mendebaleko aldaeretan, aditz-izena adlatiboaz markatu beharrean inesiboaz (-n) markatu ohi da mugimenduzko aditzen osagarri direnean (*konpontze-n; eroate-n, eta abar*).

(2)	Zapata	konpontzen	joan	da
	zapata.ABS	konpon.NMLZ.INE	joan.PTCP	(3ABS).izan

Azpi-hizkera eredu: Mendebaleko erdialdean eta sartaldean, badira osagarritzat aditz-izen inesiboak dituzten mugimenduzko aditzak (*erosten joan vs. erosten urten, igon*) modu bereizian jokatzeko dituzten zenbait hizkera. Hizkera hauetan, modu iragangaitzean (NOR) jokatzeko dira osagarritzat aditz-izenak dituzten mugimenduzko aditz gehienak: *joan, etorri, eta abar*. Salbuespena dira *urten* ('irten') eta *igon* ('igo') aditzak, izan ere, aditzok NOR-NORK erara jokatzeko dira osagarritzat aditz-izen bat dutenean.

(3a)	Ogie	erosten	joan	da
	ogi.ABS	eros.NMLZ.INE	joan.PTCP	(3ABS).izan
(3b)	Ogie	erosten	urten	dau
	ogi.ABS	eros.NMLZ.INE	urten.PTCP	edun.3SG.ERG

Oharrak:

¹ Mugimenduzko aditz hauen artean, badira 'Helburu orientazioa' duten aditzak, esate baterako, *jaurti* eta *bidali* ('nora jaurti', 'nora bidali'); eta bestetik, 'Iturburu orientazioa' duten aditzak, *jaso* eta *ekarri* bezalakoak ('nondik jaso', 'nondik ekarri').

Banaketa dialektala

Aipatutako hizkera ereduak jarraian zehazten den banaketa dialektalean lekukotu izan dira:

Eredu orokorra (aditz izena + adlatiboa helburua adierazteko): Mendebaleko hizkerez bestelako Euskal Herriko hizkera guztietan erabiltzen da eredu hau, hizkera hauetan, mugimenduzko aditzen osagarri diren aditz-izenak adlatiboz markatzen dira (Zuazo 2014: 173).

Hizkera eredia (aditz izena + inesiboa helburua adierazteko): Mendebal gehiengan (Bizkaian, Aramaion eta Debagoienako eremu batzuetan) aditz-izena inesiboaz adierazten da mugimenduzko aditzen osagarri denean (Gaminde 1989: 136; Zuazo 2014: 173).

Azpi-hizkera eredia (osagarria inesibozko aditz-izena bada, *urten* eta *igon* iragankorrak): eredu hau jarraitzen dute mendebaleko erdialdeko (Busturialdea) eta sartaldeko (Mungialdea, Txorierrri, Uribe Kosta, eta abar) hizkerek. Hizkera hauetan osagarritzat inesibozko aditz-izen bat dutenean *urten* eta *igon* aditzek inergatibo gisa jokatzen dute (Zuazo 2014: 173).

Datu-basearen emaitzak

Atal honetan, datu-basean emandako erantzunak jaso eta erantzun hauek dialektologia lanetako sailkapenekin alderatzen dira, honela, hizkera ereduren baten hedadurak aldaketarik izan duen egiaztatzeko.

Hizkera eredia (aditz izena + inesiboa helburua adierazteko): Mendebaleko berriemaile gehienek adierazi dutenez helburua aditz izena + inesiboa forman adierazten dute. Aurreikusitako bezala, hau erantzun dute Aramaioko eta Bizkaiko hizkeretako (Arratiako, Lekeitioko, Gernikako, Mungiako, Loiuko eta Getxoko) hiztunek. Debagoienako (Bergarako) berriemaileak ez du eredu hau aipatu, eta honetan, Debabarrenako Elgoibarrekin, eta eredu orokorrarekin, lerratzen da.

Azpi-hizkera eredia: Datu-basean ez da oposaketa honen hedaduraz galdetu.

Eztabaida teorikoa

Esandakoa laburtuz, euskaraz mugimenduzko aditzen osagarri diren aditz-izenak adlatiboaz (-ra) eman ohi dira Euskal Herriko eremu zabalenean. Hala ere, mendebaleko hizkeretan aditz-izena adlatiboaz markatu beharrean inesiboaz (-n) markatu ohi da mugimenduzko aditzen osagarri direnean. Datu-baseko erantzunen arabera, Bizkaian eta Aramaion hedatzen da eredu hau, ez ordea, Debagoienan.

Gainera, eremu honetako hizkera batzuetan, *urten* eta *igo* aditzek inergatibo gisa jokatzen dute osagarritzat aditz-izen bat dutenean. Azpi-hizkera honek eredu murriztagoa duela jakin arren, datubasean ez da honen inguruko informazioa jaso, eta hortaz, ez dago argi aditz bakoitzak inergatibo gisa duen hedadura.

Aipamenak

Gaminde, Iñaki. 1989. *Foruko euskararen morfosintaxiaz*. Forua: Foruko Udala.

Zuazo, Koldo. 2014. *Euskalkiak*. Donostia: Elkar.

v.3. Lokatibo bizidunak: *baitan* (v -gan)

Egilea: Jürgen Etxeberria

Nola aipatu: Etxeberria, Jürgen. (2022). Lokatibo bizidunak: *baitan* (v -gan). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=5&e=30&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

biziduntasuna, lokatiboak, postposizioak

Deskribapena

Eredu orokorra. Euskaraz, ohiko lekuzko adposizioez gain, badira izaki bizidunen espazio aldaketak adieraztea ahalbidetzen duten adposizio sail zehatz bat ere. Sail honi lekuzko adposizio bizidunen saila deritzo. Oro har, adposizio bizidunen saila osatzeko beharrezkoa da lekuzko adposizioei (inesiboa, adlatiboa, ablatiboa eta abar) biziduntasuna adierazten duen ¹-ga- morfema gehitzea, honela sortzen baitira -ga-n; -ga-n-a; -ga-n-dik.

(1)	Ez	dut	esperantzarik	ez	ihes- lekurik	zugan	baizik
	ez	edun.1SG.ERG	esperantza.PRTV	ez	ihes- leku.PRTV	zu.ga.INE	baizik

Ikus daitekeen bezala, bizidunen sailean badago azaldu beharreko alde morfologiko bat, inesibo biziduna (-ga-n), gainerako egitura bizidunetatik (ga-n-a; -ga-n-dik) bereizten dituen. Lokatibo bizidunaren kasuan lekuzko adposizio bakarra ageri da, (-n), eta, aldiz, bi lekuzko morfema adlatiboan (-n + -(r)a) eta ablatiboan (-n + -tik). Hau ez da gertatzen lekuzko adposizio bizigabeetan, ez baitago inesiboaren gauzapean morfologikorik adlatiboaren eta ablatiboaren adierazpenean. Beraz, badirudi -ga- morfemak inesiboarekiko nolabaiteko dependentzia duela, hau da, biziduntasuna gauzatzen laguntzen duela inesiboak.²

*Hizkera eredu*a: Nafarroako eta Ekialde zabaleko hizkera batzuetan *baita*-ren³ bidez ere adierazten da biziduntasuna. Baliabide hau darabilten hizkeretan *baita*-ri lotzen zaio unean-unean adierazi beharreko lekuzko adposizioa (*baita-n* -inesiboa-; *baita-ra* -adlatiboa-; *baita tik* -ablatiboa-). Gainera, aipatzekoa da *baitan*-en aurretik ageri den izen ala izenordaina absolutiboa (*zu-Ø baitan*) nahiz genitiboa (*zu-re baitan*) izan daitekeela.

(2)	Ez	dut	esperantzarik	ez	ihes- lekurik	zu	baitan	baizik
	ez	edun.1SG.ERG	esperantza.PRTV	ez	ihes- leku.PRTV	zu	bait.INE	baizik

Azpi-hizkera eredu: Hizkera hauetatik gehienetan, lokatibo biziduna adierazteko erabiltzen den *baita* aldaeraz gain, bizigabeetako inesibozko adposizioa bere horretan erabiltzen da.

(3)	Konfiantza	osoa	du	seme- alabetan
	konfiantza	oso.ABS.DET	edun.3SG.ERG	seme- alaba.PL.INE

Oharrak:

1 Biziduntasuna adierazten duen *-ga-* morfema ergatibozko *-k* morfemarekin lotu izan dute Lakarrak (2005); **zu-ga* > *zu-k*; eta Etxeparek (2013).

2 De Rijkentzat (1981), *-ga-* + *-n* > *-gan* morfeman legoke *-an* inesibozko morfemaren jatorria. Hortaz, *etxe-an* bezalako inesibo adposizio (bizigabe) batean, *-a-* morfema ez da determinatzailea batzuetan aztertu den bezala, ez bada *-ga-* horren arrasto morfologikoa. Bizidunen sailean aldiz, *-gan* morfema oinarri hartuz eratu bide zen paradigma osoa (Etxepare 2013: 72).

3 Bizidunentzako *baita-* lokatiboa ez dago lekukotuta *Eguno Testuen Corpusean (ETC)*, bai, ordea, *Euskal Klasikoen Corpusean (EKC)*, baita XX. mendean ere.

Banaketa dialektala

Jarraian zehazten da hizkera ereduak izan duten banaketa dialektala eta hedadura:

Eredu orokorra: Mendebaleko eta erdialdeko hizkera guztietan *-ga-n* lokatibo biziduna (1), eta gainerako lekuzko adposizio bizidunak erabiltzen dira (Zuazo 2014: 232).

Hizkera eredu (lokatibo biziduna *baitan*): Ipar Euskal Herriko hizkera guztietan, eta Nafarroa Garaian lekukotzen da (egun Baztanen *-engan* lekukotzen den arren, baitan agertzen da XVIII. mende amaierako testuetan (Salaburu eta Lakar 2005)), Sakanan, Burundan eta baita galdu diren inguruko hizkeretan ere (Zuazo 2014: 232).

Azpi-hizkera eredu (lokatibo biziduna *baitan* ala *-n* ohiko inesiboa): aldaera hau Ipar Euskal Herrian

(
Leon Le
Jesus-
Kristore
Imitacio
tik 1929
egokitu
adibidea

eta Nafarroa Garaiko ipar-ekialdean jaso izan da (Zuazo 2014: 232).

Datu-basearen emaitzak

Atal honetan datu-basean jasotako erantzunak jasotzen dira. Erantzun hauek dialektologia lanetako sailkapenekin alderatzen dira, bi kasuetan, hizkera ereduen hedadura bat datorren egiaztatzeko.

Hizkera eredia (lokatibo biziduna *baitan*): Zuberoako (Urđiñarbeko) berriemaileak izan ezik, Ipar Euskal Herriko (Oragarreko, Larresoroko, Ziburuko) berriemaile guztiek darabilte *baitan* lokatibo biziduna adierazteko. Nafarroa Garaian, Sakanan (Arbizun) eta Burundan (Urđiainen) ere *baitan* darabilte. Hauez gain, Imotzen eta Ekialdeko hizkeretan (Erroibarren eta Aezkoan) ere, hiztunek baiezko erantzuna eman dute.

Azpi-hizkera eredia: datu-baseko laginean ez da eredu hau aztertu.

Eztabaida teorikoa

Esandakoa laburbilduz, lokatibo bizidunak adierazteko baliabide orokorra lekuzko adposizioei (inesiboa, adlatiboa eta abar) -*ga*- morfema biziduna gehitzea da, eta hau da mendebaleko eta erdialdeko hizkerak erakusten dutena. Hala ere, Nafarroa Garaian (Sakanan, Burundan, eta abar) eta Ipar Euskal Herri gehienean, lekuzko adposizioak *baita*-ri lotuz eratzen da lokatibo bizidunen saila. Esanguratsua da, halaber, Zuberoako berriemaileak eredu honen berri eman ez izana, bertara ere hedatzea aurreikusi baita. Azkenik, hizkera batzuetan, bizigabeetako inesiboaren bitartez ere adieraz daiteke lokatibo biziduna.

Aipamenak

- de Rijk, Rudolf P.G. 1981. «Euskal morfologiaren zenbait gora-behera». In *Euskal Linguistika eta Literatura: Bide Berriak*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea. 83-102.
- Etxepare, Ricardo. 2013. «Basque primary adpositions from a clausal perspective» *Catalan Journal of Linguistics* 12, 1–42.
- Lakarra, Joseba A. 2005. «Prolegómenos a la reconstrucción de segundo grado y al análisis del cambio tipológico en (proto) vasco». *Paleohispánica: Revista sobre lenguas y culturas de la Hispania antigua* 5. 407-470.
- Salaburu, Pello and Maite Lakar. 2005. *Baztango mintzoa: gramatika eta hiztegia*. Iruñea: Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia.
- Zuazo, Koldo. 2014. *Euskalkiak*. Donostia: Elkar.

v.4. Ablatibo/partitibo alternantzia: *-(r)ik* (v *-tik*)

Egilea: Jürgen Etxeberria

Nola aipatu: Etxeberria, Jürgen. (2022). Ablatibo/partitibo alternantzia: *-(r)ik* (v *-tik*). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=5&e=31&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

ablatiboa, lokatiboak, partitiboa, postposizioak

Deskribapena

Eredu orokorra: Ablatiboak espazio aldaketa baten jatorria edo abiapuntua adierazten du; hau da, espazio aldaketa ‘nondik’ abiatu den. Gaur egungo euskaraz ablatiboazko adposizio orokorra *-tik* da eta aldaera honek du hedadura handiena.

(1)	ene	ondotik
	ene	ondo.ABL

Hizkera eredu 1: Hizkera batzuetan ohiko *-tik* ablatiboaz gain, paradigmaren zati batean *-(r)ik* partitiboa ere ageri da. Forma hau ablatibo morfema zaharraren ¹ aztarna da, eta ezaugarri hau mendebaleko eta ekialdeko hizkeretan ageri denez, hizkera gordetzailak direla esan ohi da, jatorrizko aldaerari eutsi baitiote. Esate baterako, Bizkaia mendebaldean *-rik* ablatiboa ageri da singularrean denbora aldaketa (*atzorik hona*) zein espazio aldaketa adierazteko.

(2)	ene	ondorik	(Euskaltzaindia 1985 [1991]: 403)
	ene	ondo.PRTV	

Hizkera eredu 2: Bestalde, ekialdeko hizkera batzuetan, aurkako banaketa aurkitzen dugu. Pluraleko paradigmaren *-(r)ik* ablatibo zaharraren pluraleko ereduari eutsi zaio eta *-etarik* ablatiboa darabilte. Singularrean berriz, *-tik* ablatiboa darabilte.

(3a)	Etxetik	heldu	niz	(MAIHE, Oihartzabal et al. 2009)
------	---------	-------	-----	--

	etxe.ABL	hel.PTCP	1ABS.izan		
(3b)	Behereko	etxeetarik	heldu	niz	(MAIHE, Oihartzabal et al. 2009)
	beheko	etxe.PL.ABL	hel.PTCP	1ABS.izan	

Hizkera eredua 3: Aipatutakoez gainera, ekialde zabalean zehar, badira singularrean *(-r)ik*, pluralean *(e)tarik* zein mugagabeen *-tarik*, eredu zaharrari eutsi dioten hainbat hizkera ere. Kasu gehienetan, hizkera mintzatuan ablatiboazko formak *-ik*, *-(e)taik*, eta *-taik* bilakatu dira.

					(PIEPA, Oihartzabal et al. 2009)
(4a)	Etxe(r)ik	horra	niz		
	etxe.ABL	hor.ALL	1ABS.izan		
(4b)	Peko	etxeeta(r)ik	horra	niz	
	beheko	etxe.PL.ABL	hor.ALL	1ABS.izan	(PIEPA, Oihartzabal et al. 2009)

Azpi-hizkera eredua 3: Zuberoako beste zenbait hizkeratan, adlatiboarekin gertatzen den bezala, ablatiboaren kasuan ere polimorfismoa irizpide semantikoetan oinarritzen da. Izen arrunten ablatiboa adierazterakoan *-ti(k)* darabilte, eta bestetik, izen berezien ablatiboa adierazteko *-(r)ik* aldaera zaharra.

(5a)	Maule(r)ik	jin	da	
	Maule.ABL	jin.PTCP	(3ABS).izan	
(5b)	Menditik	jin	da	
	mendi.ABL	jin.PTCP	(3ABS).izan	

Hizkera eredua 4: Erdialdeko eta mendebaleko zenbait hizkeratan ablatiboazko morfema *-ti* da. Aldaera hau ²*-(r)ik* bezain zaharra ez bada ere, *-ti* ablatiboa darabilten hizkerak, hizkera gordetzailatzat sailkatu dira.

(6a)	etxeti
	etxe.ABL
(6b)	menditi
	mendi.ABL

Hizkera eredua 5: Erdialdeko hizkera batzuetan ³*-tik(an)* aldaera azaltzen da ablatiboa adierazteko. Analogiaz partitibora (*dirurikan*) eta kausatibora (*zergatikan*) hedatu da aldaera hau. Azken berrikuntza hau Gipuzkoan hauspotu da bereziki (Zuazo 2014: 211).

(7a) etxetikan

etxe.ABL

(7b) menditikan

mendi.ABL

Oharrak:

1 Ariztimuñok (2014) dioenez, ablatiboak zein partitiboak *-rik* morfema honetan lukete jatorria. Mugatutasuna eta zenbaki bereizketa garatzearekin batera, zehazkabetasuna adierazten zuen *-rik* morfema partitibo eta ablatibo singularreko morfema bilakatuko da (*-etarik* pluralean eta *-tarik* mugagabeen). Lehen garai honetan (XVI. mende aurretik), *-rik* morfemak ablatiboa eta *-ti(k)* morfemak prosekutiboa adierazi bide zuten euskararen aldaera guztietan. Ondoren prosekutiboa ('nondik zehar') adierazten zuen *-ti* ablatibora hedatuko da (Ariztimuño 2014: 338).

2 Prosekutibotik ('nondik zehar') ablatibora hedaturiko *-ti* aldaerari bere horretan eutsi zaio (Ariztimuño 2014: 338).

3 Aldaera hau Iruñean sortu bide zen eta Lazarragaren eskuizkribuan ageri da dagoeneko (*Gaztelatica*). Mitxelena (1977) ustez, *-ti* prosekutibo atzizkiari *-ka* adberbiala atxikiz sortu zen aldaera hau ablatiboa adierazteko, izan ere, XVI. mendean *-ti(k)* atzizkiak ez zuen ablatibo baliorik (Mitxelena 1977).

Banaketa dialektala

Aipatutako hizkera ereduak jarraian zehazten den banaketa dialektalean lekukotu izan dira:

Hizkera eredu 1 (-rik sg.): Honen berri dugu Bizkaiko mendebaldean, sartaldeko hizkeretan (Euskaltzaindia 1985 [1991]: 403; Zuazo 2014: 185).

Hizkera eredu 2 (-tik sg.; -etarik pl.): Lafon (1948), Hualde (2003b: 185), Oihartzabal eta bestek (2009) diotenez, ekialdeko hizkera batzuetan

Hizkera eredu 3 ((-r)ik sg.; -(e)tarik pl.; -tarik mggb.): Ezaugarri honek hedadura zabala du. Iparraldean, Zuberoa gehianean, Baxenafarroan eta Lapurdi gehianean lekukotzen da. Nafarroa Garaian ekialdeko hizkera guztietan paradigma zaharra zerabilten eta darabilte, Baztan ere eremu barruan dagoelarik (Oihartzabal et al. 2009; Zuazo 2014: 244).

Azpi-hizkera eredu 3 (polimorfismo semantikoa: -(r)ik berezietan vs. -ti(k) arruntetan): Hizkera eredu hau da Zuberoako eremu gehienetan erabiltzen dena (Zuazo 2014: 155).

Hizkera eredu 4 (-ti paradigma osoan): Ezaugarri hau gorde duten eskualdeak ez daude geografikoki elkarren ondoan. Bizkaiko mendebaldea, Gipuzkoako Goierri, Nafarroako Sakana, Araitz-Betelu eta Larraun dira eremu gordetzailak (Zuazo 2014: 211; Hualde 2016).

Hizkera eredu 5 (-tikan paradigma osoan): Gipuzkoa iparraldean (Deba ibarraren iparraldea barne) eta Nafarroa ipar-mendebaldean dauka indarririk handiena (Zuazo 2014: 211).

Datu-basearen emaitzak

Atal honetan datu-basean jasotako erantzunak jasotzen dira. Erantzun hauek dialektologia lanetako sailkapenekin alderatzen dira, bi kasuetan, hizkera ereduen hedadura bat datorren egiaztatzeko.

Hizkera eredia 1 (-rik sg.): Bizkaiko mendebaldeko (Getxo, Loiu) hiztunek eredu hau lekukotzen dela baieztatu dute. Hauxe gain, Nafarroa Garaiko Baztanen (Arizkun) eta Erroibarren (Mezkiritz) eredu hau erabiltzen dela adierazi dute bertako hiztunek.

Hizkera eredia 2 (-tik sg.; -etarik pl.): alternantzia honen berri eman dute Lapurdi erdialeko (Larresoro), Baxenafarreko (Oragarre) eta Zuberoako (Urdiñarbe) hiztunek. Ekialdeko beste hizkeretako hiztunek (Baztan, Erroibar, Aezkoa) ez dute alternantzia hau erabiltzen denik adierazi.

Hizkera eredia 3 ((-r)ik sg.; -(e)tarik pl.; -tarik mggb.): Zuberoako Urdiñarbeko hiztunak hizkera eredu hau ere lekukotzen dela adierazi du; aitzitik, Baxenafarreko (Oragarre), Lapurdi erdialeko (Larresoro) eta Nafarroa Garaiko ekialdeko (Baztan, Erroibar, Aezkoa) hiztunek ez dute honen berri eman.

Azpi-hizkera eredia 3 (polimorfismo semantikoa: -(r)ik vs. -ti(k)): Zuberoako Urdiñarbeko hiztunak baieztatu erantzuna eman du, bertan polimorfismo semantikoa ere badarabilte la baieztatuz.

Hizkera eredia 4 (-ti paradigma osoan): Eredu hau darabilte Bizkaiko mendebaldeko (Getxo, Loiu, Mungia), Sakanako (Arbizu), Larraun inguruko (Etxaleku, Imotz) hiztunek. Hauxe gain, eredu hau lekukotzen dela erantzun dute Debagoienako (Bergara eta Aramaio), Goierriekin mugakide den Urolako (Beizama), Lapurdi erdialeko (Larresoro), Erroibarko eta Aezkoako (Orbaizeta) hiztunek, ez ordea, Goierri (Itsasondo).

Hizkera eredia 5 (-tikan paradigma osoan): Gipuzkoa iparraldeko hiztunek (erdialdekoa: Azpeitia, Hernani, Goizueta (Nafarroan), Errenteria, Irun; mendebaldekoa: Elgoibar) eta Nafarroa iparraldekoek (Etxaleku, Imotz) eredu hau lekukotzen dela adierazi dute. Hauxe gain, nafar-lapurteradun hiztunek (Lapurdi Larresoron eta Baxenafarreko Oragarren) ere aldaera hau darabilte.

Eztabaida teorikoa

Laburbilduz, euskaraz ablatiboa adierazteko aldaera ugari daude, eta ez dago hedaturaz gainerakoei nabarmenki gailentzen zaien aldaerarik. Ablatibozko adposizio orokorra *-tik* da. Hala ere, hizkera askotan *-(r)ik* ablatibo-partitibo zaharrari eutsi diote. Kasu batzuetan, paradigmaren zati bakarrean gorde da; singularrean, Bizkai mendebaldean eta, datu-baseko erantzunak adierazten dutenez, baita Nafarroa Garaian (Baztanen eta Erroibarren) ere. Pluraleko *-(r)ik*, ekialdeko hizkera batzuetan (Lapurdi, Baxenafarren eta Zuberoan) lekukotu den arren, Nafarroa Garaiko ekialdeko hiztunek ez dute honen berri eman. Espero zitekeenaren aurka, paradigma osoan *-(r)ik* aldaera zaharra erabiltzen dela Urdiñarbeko (Zuberoa) hiztunak baino ez du adierazi. Gainera, Zuberoako Urdiñarben polimorfismo semantikoa ere lekukotzen dela adierazi du. Beraz, hizkera batzuetako hiztunek eredu bat baino gehiago jaso dute.

Hauetz gain, erdialdeko hizkeretako hitzunek, prosekutibotik hedatutako *-ti* aldaera paradigma osoan gorde dela baieztatu dute (Sakanan, Larraunen eta Goierriko mugan dagoen Beizaman). Hala ere, datu-baseko emaitzek *-ti* aldaera beste hizkera batzuetan ere erabiltzen erakusten dute. Honen adibide dira Bizkaiko mendebaldeko (Getxo, Loiu, Mungia), Debagoienako (Bergara eta Aramaio), Lapurdi erdialdeko (Larresoro), Erroibarko eta Aezkoako (Orbaizeta) Beraz, Bizkai mendebaldean eta Lapurdin eredu bat baino gehiago jaso dira.

Azkenik, Gipuzkoa iparraldean *-tikan* berrikuntza hedatu dela baieztatzen dute erantzunek. Hala ere, eredu hau uste baino hizkera gehiagotan aurkitu da eta ekialderantz ere hedatu da, nafar-lapurteradun hitzunek (Lapurdiko Larresoron eta Baxenafarreko Oragarren) honen berri eman baitute.

Aipamenak

- Ariztimuño, Borja. 2014. «The origin of the Basque partitive». In Silvia Luraghi and Tuomas Huomo (eds.), *Partitive Cases and Related Categories*. Berlin, Boston: De Gruyter Mouton. 323-344.
- Euskaltzaindia. 1985. *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak I*. Iruñea: Institución Príncipe de Viana eta Euskaltzaindia. [Reprinted in Euskaltzaindia. 1991]
- Hualde, José Ignacio. 2003b. «Non-finite Forms». In José Ignacio Hualde and Jon Ortiz de Urbina (eds.), *A Grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter. 196-246.
- Hualde, José Ignacio. 2016. «On Basque dialects». In Beatriz Fernández and Jon Ortiz de Urbina (eds.), *Microparameters in the grammar of Basque*. Amsterdam/Philadelphia: John Benjamins. 15-36.
- Lafon, René. 1948. «Sur les suffixes casuelsti et *-rik*». *EJ 2*, [Reprinted in Lafon 1999. *Vasconiana* (Iker 11), 199-207. Bilbo: Euskaltzaindia]
- Mitxelena, Koldo. 1977 [1961]. *Fonética Histórica Vasca*, 2nd edn. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia.
- Oyharçabal, Beñat, Irantzu Epelde and Jasone Salaberria. 2009. *Norantz proiektua*. [Available in the Internet: <http://norantz.org/>]
- Zuazo, Koldo. 2014. *Euskalkiak*. Donostia: Elkar.

v.5. Adlatibo marka: *-rat/-lat/-alat* (v *-ra*)

Egilea: Jürgen Etxeberria

Nola aipatu: Etxeberria, Jürgen. (2022). Adlatibo marka: *-rat/-lat/-alat* (v *-ra*). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=5&e=32&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

adlatiboa, lokatiboak, postposizioak

Deskribapena

Eredu orokorra: Adlatiboak espazio aldaketa baten helmuga adierazten du; hau da, espazio aldaketa ‘nora’ gertatu den. Euskaraz adlatiboazko adposizio orokorra *-ra* da eta hau da hizkera gehienetan lekukotzen den aldaera.

(1)	Parisera	noa
	Paris.ALL	1SG.ABS.joan

Hizkera eredia: Ipar Euskal Herriko hizkeretan adlatiboaren *-rat* aldaera ere ageri da paradigma osoan ala paradigmaren zati batean (ikus – *Azpi-hizkera* –).

(2)	Pariserat	noa
	Paris.ALL	1SG.ABS.joan

Azpi-hizkera eredia: Ekialdeko hizkera batzuetan *-ra* eta *-rat* azaltzen dira izen bereziekin, toponimoekin bereziki, baina baita izen arrunten adlatibo plurala eta mugagabea adierazterakoan ere. Bestetik, *-(a)lat* izen arrunten adlatibo singularrean erabiltzen da soilik. Honi adlatiboaren polimorfismoa deritzo. Gainera, izen arrunten adlatibo adierazterakoan determinatzaile edo artikulua erabiltzen da. Dena den, zubereraz ohikoak diren asimilazio fonologikoen (bortialat > bortialat > bortilat) eraginez determinatzailea ez dago agerian.

(3a)	Maulea	jun	da
	Maule.ALL	joan.PTCP	(3ABS).izan
(3b)	Bortilat	jun	da
	mendia.ALL	joan.PTCP	(3ABS).izan

Beraz, (3a) adibidean ageri den *-ra* adlatiboak eta *-rat* aldaerak balio bera dute zubereraz. Izan ere, *Maule(r)a* bezain ohikoak dira *Garazi(r)at* edo *Bordele(r)at* bezalakoak.

Beste zenbait kasutan ere *-rat* erabili ohi da. Esate baterako, zubereraz *etxera(t)* (‘mugagabea’) eta *etxiala(t)* (< *etxealat* ‘mugatu singularra’) ezberdinak dira semantikoki. Lehendabizikoak, mugagabeak, ‘nor bere etxea’ adierazten du, eta mugatu singularrak aldiz, ‘beste edonoren etxea’ (Padilla 2017: 237).

Banaketa dialektala

Aipatutako hizkera ereduak jarraian zehazten den banaketa dialektalean lekukotu izan dira:

Hizkera eredia (-rat): Aldaera honen berri dugu Ipar Euskal Herrian, Bortzirien ipar-ekialdean (Bera, Etxalar), Baztan iparraldean, Xareta eskualdean (Urdazubi, Zugarramurdi) eta Luzaiden (Zuazo 2014:

257-258).

Azpi-hizkera eredua (polimorfismo semantikoa adlatibo singularrean: *-ra* eta *-rat* berezietan vs. *-(a)lat* arruntetan). Adlatiboko polimorfismo semantikoa (ablatibozko polimorfismoaren gisan) Zuberoan lekukotzen da (Zuazo 2013: 30).

Datu-basearen emaitzak

Atal honetan, datu-basean emandako erantzunak jaso eta erantzun hauek dialektologia lanetako sailkapenekin alderatzen dira, honela, hizkera ereduren baten hedadurak aldaketarik izan duen egiaztatzeko.

Hizkera eredua (-rat): Aldaera hau euren tokiko hizkeretan erabiltzen dela adierazi dute Ipar Euskal Herriko (Ziburuko, Larresoroko, Oragarreko eta Urdiñarbeko) berriemaile guztiek, Lapurdiko kostaldetik Zuberoaraino. Haez gain, Nafarroa Garaiko iparraldean aurreikuspena bete da, Baztango (Arizkun) hiztunak ere aldaeraren berri eman baitu. Aipatutakoez gain, Nafarroako ekialdeko hiztunek ere *-rat* aldaera lekukotzen dela adierazi dute Erroibarren (Mezkiritzen) eta Aezkoan (Orbaizetan).

Azpi-hizkera eredua (singularreko polimorfismoa: *-ra* eta *-rat* vs. *-(a)lat*): Zuberoako (Urdiñarbeko) hiztunak ez du polimorfismoaren berri eman.

Eztabaida teorikoa

Euskaraz adlatiboa adierazteko aldaera hedatuena *-ra* da. Hala ere, badira adlatiboa adierazteko erabiltzen diren beste zenbait aldaera ere. Esate baterako, Ipar Euskal Herriko eta Nafarroa Garaiko iparraldeko hizkeretan *-rat* da adlatibozko adposizioa. Eremu honetako hiztunek datu-basean eman dituzten erantzunak bat egiten dute aurreikusitakoarekin. Nafarroa ekialdeko (Erroibar eta Aezkoa) hiztunek ere *-rat* aldaeraren berri eman dute.

Adlatibozko *-rat* hizpide dugula, aipatzekoa da *-ra* eta *-rat* aldaerak esanahi banarekin erabili izan zirela iraganean. Bi aldaerak erabiltzen zituzten nafar-lapurterako hizkeretan ¹, *-rat* aldaerak nonbaitera joan eta bertan denbora luzez ² gelditzeko asmoa zela adierazi ohi zuen. Bestetik, joan-etorri laburra egiteko asmoa zenean, *-ra* aldaera erabili ohi zen. Dena dela, polimorfismo hau ez dago indarrean (Zuazo 2014: 258).

(4a)	Ameriketarat	joan	da
	Amerika.PL.ALL	joan.PTCP	(3ABS).izan
(4b)	Ostatura	joan	da
	ostatu.ALL	joan.PTCP	(3ABS).izan

Gainera, adlatibozko paradigma osoan ez bada ere, lekuzko erakusleen kasuan, *-rat* aldaerak hedadura zabalagoa erakusten du. Nafarroako eremu zabalean entzun daitezke *hunata/honata* ('hona'), *horrata* ('horra') eta *harata* ('hara') gisako erakusleak, baita Basaburuan eta Imotzen (Zuazo 2014: 258).

Azpi-hizkera ereduari dagokionez, Urdiñarbeko (Zuberoa) hiztunak *-(a)lat* vs. *-rat* polimorfismoa aipatu ez izana esanguratsua da. Beraz, baliteke zuberotar batzuek oposaketa hau galdu eta Ipar Euskal Herrian ohikoa den eredia bereganatu izana; izen arrunten singularrean ere *-rat* aldaera erabiliz.

Oharrak:

1 Hizkera batzuetan bi aldaera hauetako bakoitzak esanahi semantiko bana izan badu ere, egun hiztun gehienek aldaera bata zein bestea erabiltzen dute esanahi ('nora') berarekin (Hualde 2003b: 185).

2 Aldi luze baterako joateaz ez ezik, *-rat* aldaeraren bitartez itzultzeko asmorik ez zela adierazi ohi zen, *banoa Pariserat* perpausean esate baterako. Ostera, *banoa Parisera* perpausak joan-etorri laburra eta itzultzeko asmoa adierazi bide zuen (Lafitte 1979 [1944]: 60).

Aipamenak

Hualde, José Ignacio. 2003b. «Non-finite Forms». In José Ignacio Hualde and Jon Ortiz de Urbina (eds.), *A Grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter. 196-246.

Lafitte, Pierre. 1944. *Grammaire Basque (Navarro-Labourdin Littéraire)*. Baiona: Librairie Le Livre. [Reprinted in 1979. Donostia: Elkar]

Zuazo, Koldo. 2013. *The dialects of Basque*. Reno: University of Nevada.

Zuazo, Koldo. 2014. *Euskalkiak*. Donostia: Elkar.

v.6. Muga-adlatiboa: *ra gino* (v *-raino*)

Egilea: Jürgen Etxeberria

Nola aipatu: Etxeberria, Jürgen. (2022). Muga-adlatiboa: *ra gino* (v *-raino*). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=5&e=33&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

adlatiboa, lokatiboak, muga-adlatiboa, postposizioak

Deskribapena

Bestelako deiturak: Approximatif (Lafitte 1979 [1944]: 60)

Eredu orokorra: Euskaraz, *-ra* ('nora') adlatibozko adposizioaz gain, badira adlatiboa oinarri hartuz eratzen diren beste bi lekuzko adposizio ere. Bi adposizio hauek euskaraz hurbiltze adlatiboa deritzon *-rantz* direkzionala, eta euskaraz muga adlatiboa deritzon *-raino* terminatiboa dira. Terminatiboak bide edo espazio aldaketa baten azken muga edo puntua adierazten du. Gainera, *nora-k* ez bezala, puntu jakin horretatik aurrera igaro ezin delako esanahia ere bere baitan hartzen du (Euskaltzaindia 1985 [1991]: 265).

Hizkera guztietan zehar orokortutako muga adlatiboa *-raino* da. Adposizio hau *-ra* adlatibozko adposizioak eta *-(d)ino*¹ morfema mugatzaileak bat egitean sortzen da, eta ondoren, *-raino* gisa fosildu da.

(1)	azken	adarretaraino	(Hualde 2003b: 186)
	azken	adar.PL.ALL.TERM	

Hizkera ereduak 1: Dena den, terminatiboa adierazterakoan, adlatiboa eta morfema mugatzailea ez dira elkartuta ageri hizkera batzuetan. Dirudienez, adlatibozko *-ra* morfemarekin elkartu aurretik, *gino*² morfema mugatzailea Ardatz Zati edo postposizio aske gisa erabili bide zen. Oraindik ere, Bizkaiako zenbait hizkeratan aurki daiteke *gino* morfema mugatzailea Ardatz Zati beregain gisa:

(2)	azken	adarretara	gino	(Hualde 2003b: 186)
	azken	adar.PL.ALL	POST	

Oharrak:

1 Muga adlatiboaren eraketa azaltzeko bi proposamen nagusi formulatu dira: lehena De Rijk-ena (1995), **-ra + gain + do* berreraikirik, eta bigarrena Lakarrarena, **-ra + *(e)din + *non*. Azken hau morfologikoki hurbil dago *-ra(d)ino* & *-dino*; cf. *deno* 'den bitartean' denborazko adieratik (Padilla-Moyano 2017: 269).

2 Ebidentzia historikoak: «Bizkaiera Zaharreagino Ardatz Zatia edo postposizio askea absolutibozko osagarrien ere lekukotzen da: RS 81 *ynurria guino lagun gura /hasta la hormiga deseaa cõpañía* 'event the ant wants company'.» (Hualde 2003b: 186).

Banaketa dialektala

Aipatutako hizkera ereduak jarraian zehazten den banaketa dialektalean lekukotu izan dira:

Hizkera ereduak (-ra adlatiboa + -gino muga morfema beregaina): muga morfema beregaina (*-gino*) adlatiboarekin elkartu gabe darabilte Bizkaierako zenbait hizkeratan (Hualde 2003b: 186).

Datu-basearen emaitzak

Atal honetan datu-basean jasotako erantzunak jasotzen dira. Erantzun hauek dialektologia lanetako sailkapenekin alderatzen dira, bi kasuetan, hizkera ereduaren hedadura bat datorren egiaztatzeko.

Hizkera eredia 1 (-ra adlatiboa + -gino muga morfema beregaina): Bizkaiko hizkeretako berriemaile bakar batek ere ez du eredu honen berri eman.

Eztabaida teorikoa

Laburbilduz, euskaraz muga adlatiboa edo terminatiboa adierazteko modu ohikoena *-raino* da. Honez gain, muga adlatiboa adierazteko beste modu bat *-ra* adlatiboa eta *-(d)ino* muga morfema era berezian ematea da. Dena den, eredu hau erabiltzea aurreikusten zen bizkaierazko hiztun bakar batek ere ez du aldaera honen berri eman. Aipatutako hizkera eredu honez gain, badira muga adlatiboa adierazteko beste aldaera batzuk ere, datu-basean aintzat hartu ez direnak.

Hizkera eredia 2: Mendebalean *-ra arte* egitura ere maiztasun handiz erabiltzen da terminatiboa edo muga adlatiboa adierazteko. Ezer baino lehen, zehaztu beharra dago *-raino* eta *-ra arte* duten banaketa. Oro har, *-raino* espazio haremanak adierazteko erabiltzen da, eta *-ra arte*, berriz, denbora adierazteko:

(3a)	basoraino	(EGLU I 1991: 267)
	baso.PL.ALL.TERM	
(3b)	arratsalde(ra)	arte (EGLU I 1991: 267)
	arratsalde.ALL	POST

Hala ere, mendebalean *-ra arte* erabiltzen da muga adlatibo balioarekin (*Lezamara arte, etxera arte*) eta dirudienez, *arte* Ardatz Zatiak *-ino* morfema mugatzailearen balio bera hartu du. Honetaz gain, *-raino* denbora adierarekin ere erabiltzen da hizkera gehienetan (*gaurdaino* eta *egundaino*) (Euskaltzaindia 1985 [1991]: 268).

Honen berri non: Bizkaia ipar-ekialdean (Lea-Artibai, Busturialdea), Txorierrin, Arratian (Zeanuri) eta Debagoienako eremu batzuetan (Euskaltzaindia EHHA, 2008).

Hizkera eredia 3: Iparraldeko mintzoetan terminatiboa *-ra* adlatiboazko adposizioaren eta denborazko balioa duen *-no* ('noiz arte') morfema soilaren bitartez adierazten da. Elkartze honen emaitza gisa, *-rano* (izen arrunt bizigabeetan eta izen berezietan) eta *-alano* aldaerak lekukotzen dira.

(4)	bihotzaren	barnialano	(Padilla-Moyano 2017: 273)
-----	------------	------------	----------------------------

Honen berri non: Egun Nafarroa Beherean (Euskaltzaindia EHHA, 2008). Zuberoan XIX. mende erdialdera arte (Padilla-Moyano 2017: 272).

Hizkera eredu 4: Zubereraz, terminatiboa adierazteko *-lartio* (*-lat artio*) egitura erabiltzen da izen arruntekin eta bizigabeekin. Kasu honetan, muga adierazten duten bi elementu ageri direla ikus daiteke. Batetik, *arte* Ardatz Zatia ageri da, eta bestetik, *-(d)ino* muga morfema legoke.

Honek badu bere arrazoia, izan ere, gainerako euskalkietan *arte* postposizio aske edo Ardatz Zatia erabiltzen da denbora eta espazio muga adierazteko. Bestalde, zubereraz *artio* (*arteino*, *artino* < *arte* + *-(d)ino*) da muga balioa duen elementua. Hizkera batzuetan bilakabideak aurrera jarraitu du eta *-(a)lat* adlatibozko morfemarekin batera fosildu da *-lartio*.

(5) oihanilartio

(Pagola)

(Euskaltzaindia

EHHA, 2008: 1171)

oihan.SG.ALL.POST/TERM.TERM

Honen berri non: Zuberoan (Euskaltzaindia EHHA, 2008: 1171)

Beraz, datu-basean aztertu diren ereduez gain, badira muga adlatiboa adierazteko beste hiru aukera ere. Batetik, berariazko morfema mugatzailerik ageri ez denean, *arte* postposizio askeak edo Ardatz Zatiak adierazten lexikalizatzen du muga funtzioa. Bestetik, *-ra* adlatibozko adposizioaren eta denborazko balioa duen *-no* muga morfema erabiliz ere adieraz daiteke lekuzko muga adlatiboa. Azkenik, Ardatz Zatiaren eta morfema mugatzailearen baturak ere bete dezake funtzio hau, zubererazko *-lartio* formak erakusten duen bezala.

Aipamenak

de Rijk, Rudolf P.G. 1995. «Nunc in Old Basque», In José Ignacio Hualde, Joseba A. Lakarra & Robert L. Trask (eds.), *Towards a History of the Basque Language*. Amsterdam: John Benjamins. 295-311.

Euskaltzaindia. 1985. *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak I*. Iruñea: Institución Príncipe de Viana eta Euskaltzaindia. [Reprinted in Euskaltzaindia. 1991]

Euskaltzaindia. 2008. *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*a. [Available in the Internet:

https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_ehha&view=frontpage&Itemid=466&lang=eu&orria=sarrera]

Hualde, José Ignacio. 2003b. «Non-finite Forms». In José Ignacio Hualde and Jon Ortiz de Urbina (eds.), *A Grammar of Basque*. Berlin: Mouton de Gruyter. 196-246.

Lafitte, Pierre. 1944. *Grammaire Basque (Navarro-Labourdin Littéraire)*. Baiona: Librairie Le Livre. [Reprinted in 1979. Donostia: Elkar]

Padilla-Moyano, Manuel. 2017. *Zuberoako euskararen azterketa diakronikoa: XVI-XIX. mendeak*. Gasteiz: UPV/EHU.

v.7. Instrumentalaren eta inesiboaren alternantzia denborazko modifikatzaileetan: instrumentala (-z) (v inesiboa (-n))

Egilea: Kristina Bilbao

Nola aipatu: Bilbao, Kristina. (2022). Instrumentalaren eta inesiboaren alternantzia denborazko modifikatzaileetan: instrumentala (-z) (v inesiboa (-n)). In Bilbao, Kristina, Ane Odria, Ane Berro, Josu Landa & Beatriz Fernández (eds.), *Euskara Bariazioan / Basque in Variation (BiV)* (3. arg.). UPV/EHUko Argitalpen Zerbitzua. [Interneten eskuragarri: <https://basqueandbeyond.ehu.eus/biv/?o=chapters&id=5&e=34&h=eu>]. ISBN: 978-84-1319-456-1.

Gako-hitzak

aspektua, denborazko adberbioak, lokatiboak, modifikatzaileak, postposizioak, telikotasuna

Deskribapena

Aditzek adierazten dituzten ebentua hainbat motatakoak izan daitezke aspektuari dagokionez. Vendler-ek (1967) ebentuen sailkapen bat proposatzen du, ebentuek semantikoki adierazten duten aspektuan oinarrituta. Hurrengo adibideetan bildu ditugu ebentu mota horien ezaugarriak (a) eta adibideak (b):

- | | |
|-----|--|
| (1) | a. Burutzapenak: iraupena eta amaiera puntu zehatza duten ebentua.
b. Mirenek zirkulu bat marraztu zuen |
|-----|--|

- | | |
|-----|---|
| (2) | a. Lorpenak: amaiera puntu zehatza izan arren, iraupenik ez duten ebentu puntualak.
b. Mirenek altxorra aurkitu zuen |
|-----|---|

- | | |
|-----|---|
| (3) | a. Egoerak: denboran zehar mugarik ezta garapenik gabe irauten duten ebentua.
b. Mirenek frantsesez zekien |
|-----|---|

- | | |
|-----|--|
| (4) | a. Jarduerak: denboran zehar irauten duten prozesuak.
b. Mirenek orga bultzatu zuen |
|-----|--|

Sailkapenean ikus daitekeenez, hiru propietate erabili zituen ebentu motak ezaugarritzatzeko: *telikotasuna, iraupena eta dinamikotasuna*. Propietate hauen arabera, ebentu mota bakoitzak jokabide desberdina erakusten du hainbat gramatika testuingurutan. Kapitulu honetan, telikotasunari erreparatuko diogu. Ebentu telikoek –hala nola burutzapenek (1) edo lorpenek (2)–, amaiera puntu zehatz eta berezkoa dute; ebentu atelikoek –egoerak (3) eta jarduerak (4) kasu–, aldiz, denboran jarraitzen dute berezko amaiera puntu gabe.

Ebentu telikoak atelikoetatik bereizteko erabili ohi den ezaugarria dugu denborazkomodifikatzaile desberdinekin erakustenduten jokabideari erreparatzea (Vendler 1967; Dowty 1979; Thomson 2004). Batetik, iraupena adierazten duten denborazko modifikatzaileak (*durative adverbials*) ditugu; bestetik, denboratarte bat adierazten dutenak (*time frame adverbials*).

Ebentu telikoekin iraupena adierazten duten modifikatzaileak soilik dira bateragarri, hala nola *bi minutu(t)an*(5a). Aldiz, ebentu atelikoekin denbora tarte bat adierazten modifikatzaileak baino ezin daitezke azaldu, *bi minutuz* adibidez(5b).

(5 a)	{Bi	minutuan	/	Bi	minututan	/	*Bi	minutuz}	heldu
	bi	minutu.BN.INE	/	bi	minutu.UNBN.INE	/	bi	minutu.INS	hel .PTCP
	naiz								
	1SG.ABS.izan								
(5 b)	{	minutuz	/	minutu(t)an}	egin				korrika
	Bi		*bi						
	bi	minutu.INS	/	minutu.(UN)	egin.PTCP		edun.1SG.ERG		korrika
			bi	BN.INE					

Izan ere, iraupenezko modifikatzaileke ebentuaren amaiera-puntua barne hartu behar dute; horregatik, ebentu telikoekin soilik dira bateragarri, ebentu mota hauek berezko amaiera puntua baitute, atelikoek ez bezala. Aldiz, denbora tarte adierazten duten modifikatzaileek dute ebentuaren amaiera puntua barne hartzen. Hori dela eta, ebentu atelikoekin baino ezin daitezke azaldu.

Euskaraz, aldakortasun dialektala dago denborazko modifikatzaile bakoitza eraikitzeke hautatzen den postposizioari dagokionez. Iraupenezko modifikatzaileek postposizio inesiboa (-n) hartu ohi dute e redu orokorrean (6a). Euskaltzaindiaren (2000, #110 araua) arabera, denbora unitatea jarraia baldin bada, hots, iraupena adierazi nahi bada, inesibo mugatua (-an) erabili behar da. ¹ Dena den, hiztun askok inesibo mugagabea (-tan) ere onartzen dute.

(6a)	Bi	minutuan	/	Bi	minututan		etorri	naiz
	bi	minutu.BN.INE	/	bi	minutu.UNBN.INE		etor.PTCP	1SG.ABS.izan

Bestalde, denbora adberbio atelikoek ez dute ebentuaren amaiera-puntua barne hartzen. Halakoak, biluzik eta instrumentalarekin (-z) azaldu ohi dira (6b).

(6b)	Bi	minutuz	egin	dut	korrika
	bi	minutu.INS	egin.PTCP	edun.1SG.ERG	korrika

Dena den, instrumentalaren eta inesiboaren arteko banaketa hau ez da bera hizkera guztietan. Hala, ekialdeko hizkera batzuetan iraupenezko modifikatzailearen burua intrumentala (-z) da, eta ondorioz, denbora adberbio teliko (7a) zein atelikoetan (7b) postposizio berbera azaltzen da.

(7a)	Bi	minutuz	etorri	naiz	
	bi	minutu.INS	etor.PTCP	1SG.ABS.izan	

(7b)	Bi	minutuz	egin	dut	korrika
	bi	minutu.INS	egin.PTCP	edun.1SG.ERG	korrika

Oharrak:

1 Aldiz, iraupena adierazten ez bada, mugagabea erabili beharko litzateke (Euskaltzaindia 2000, #110 araua). Adibidez: *Astean bi egunetan egiten dut yoga.*

Banaketa dialektala

Goian deskribatutako hizkera eredu (7) ipar-ekialdeko hizkeretan aurki daiteke. Izan ere, euskalkiaren arabera inesiboa zein instrumentala aurki daitezke iraupena adierazteko eta Iparraldeko euskalkietan -zinstrumentala gehiago erabiltzen da Hegoaldean baino (Euskaltzaindia 1985: 243).

Datu-basearen emaitzak

Datu-basean jasotako emaitzak bat datoz deskribatutako banaketa dialektalarekin. (7a) perpausa, hots, postposizio instrumentala iraupenezko modifikatzaile baten buru daukana, Iparraldeko hizkera guztietan (Ziburu, Larresoro, Oragarre eta Urdiñarbe) lekukotu da. Horrez gain, Hegoaldean Baztango hizkeran ere jaso da (7a) eredu. Hau ez da harrigarria, ekialdeko hizkera izanik Baztangoa, Iparraldeko hizkeretatik hurbil dagoena.

Bestalde, deskribapenean azaldu dugun bezala, denbora esparrua adierazten duten modifikatzaileekin -z instrumentala erabiltzea da eredu orokorra (6b, 7b). Horregatik, Iparraldeko eta Baztango hizkerez gain –hau da, (7a) eredu onartzen dutenez gain– Hegoaldeko hainbat mintzotan ere jaso da (7b) eredu.

Euskara nafarraren ekialdean, Orbaizetan jaso da (7b) hizkera ereduaren berri, ez ordea Erroibarren. Nafarroaren ipar-mendebaldean, berriz, (7b) perpausa Imotzen lekukotu da baina ez Sakanan (Arbizu), ezta iparraldean Goizuetan ere. Beraz, badirudi euskara nafarrean hizkera batetik bestera desberdintasunak daudela.

Aldiz, erdialdeko euskalkian aztertutako hizkera guztietan lekukotu da (7b)-ko hizkera erdua (Irun, Erreterria, Hernani, Beizama eta Itsasondo). Mendebaldeko euskalkian, bi hizkeratan bakarrik jaso da: sortaldean Deba ibarrean (Bergara) eta sartaldean Loiu.

Eztabaida teorikoa

Atal honetan gogoeta teoriko bat ekarri nahi izan dugu. Ikusi dugunez, ipar-ekialdeko hizkera batzuetan denbora modifikatzaile mota biek, bai iraupena bai denbora tarte adierazten dutenek, postposizio instrumentala dute buru. Geure buruari egin diezaiokegun galdera interesgarria litzateke ea zer den hizkera hauetako erduan aldatzen dena: modifikatzailearen izaera ala aditzak adierazten duen ebentua interpretatzeko modua. Hots, aukera bat litzateke pentsatzea hizkera hauetan, denbora tarte mugatua ez ezik, instrumentalak iraupena ere adieraz dezakeela. Aldiz, beste aukera bat da instrumentalak hizkera orotan denbora tarte mugatua adieraztea eta, ekialdeko hizkeren kasuan, *etorri* aditzak adierazten duen ebentuaren irakurketa mugagabe bat egitea.

Aipamenak

- Dowty, David. 1979. *Word meaning and Montague Grammar*. Dordrecht: Reidel.
- Euskaltzaindia. 1985. *Euskal Gramatika: Lehen Urratsak I*. Iruñea: Institución Príncipe de Viana eta Euskaltzaindia. [Reprinted in Euskaltzaindia. 1991]
- Euskaltzaindia. 2000. *Hiztegi Batua*. Bilbo: Euskaltzaindia.
- Thompson, Ellen. 2006. «The Structure of Bounded Events» *Linguistic Inquiry*, 37(2), 211–228.
- Vendler, Zeno. 1967. *Linguistics in philosophy*. Ithaca, N.Y.: Cornell University Press.